

ONDAREAREN EUROPAKO
JARDUNALDIAK

2026

Ondarea
arriskuan:
biziberritu,
eutsi,
berrasmatu





IRAILAK

25 | 26 | 27

URRIAK

2 | 3 | 4



European Heritage Days
Journées européennes
du patrimoine

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua



INFORMAZIO
GEHIAGORAKO DEITU
848 426 090 TELEFONORA
9:00ETATIK 14:00ETARA,
ASTELEHENETIK OSTIRALERA



HAUTATU HERRI BAT PROGRAMATUTAKO
EKITALDIAK IKUSTEKO

ABAURREGAINA

ABLITAS

ALZUZA

AOIZ / AGOITZ

ARTAJONA

AURITZ / BURGUETE

AZAGRA

AZKOIEN

BERBINZANA

CASTEJÓN

CABANILLAS

CORTES

CORDOVILLA

ESTERIBAR

ESTELLA-LIZARRA

FUSTIÑANA

FALCES

GARÍNOAIN

GALLIPIENZO /
GALIPENTZU

JAVIER

IGÚZQUIZA

LERGA

LANTZ

LODOSA

LIÉDENA

OLITE / ERRIBERRI

MAÑERU

PAMPLONA / IRUÑA

ORBAICETA

PIEDRAMILLERA

RONCAL /
ERRONKARI

SANGÜESA /
ZANGOZA

SESMA

SORLADA

TAFALLA

TUDELA

ULTZAMA

URDAX

VALLE DE EGÜÉS /
EGUESIBAR

VALLE DE OLLO /
OLLARAN

VIANA

ZUGARRAMURDI



2026KO ONDAREAREN EUROPAKO JARDUNALDIAK

ABAURREGAINA

ONDARE NATURALA

ARRISKUAN

DATA

ETA

ORDUA

Irailak 26,

11:00

LEKUA

Hilarrien Museoa

DESKRIBAPENA

Ezpelari buruzko esposizioa, Buxus sempervirens, UICNk desagertzeko arriskuan katalogatua (2026ko apirila). Konponbide aplikagarriei buruzko eztabaida parte-hartzailea.

+INFORMAZIO

ETA

IZEN-EMATEAK

T. 615 163 930

Aurretik izena ematea: EZ

ANTOLATZAILEA

Hilarrien Museoa

Ezpelzaintza2050 Elkartea



2026KO ONDAREAREN EUROPAKO JARDUNALDIAK

ABLITAS

GEOCACHING GINKANA: EZAGUTU ABLITASEN HISTORIA



DATA ETA ORDUA

Irailak 25, ostirala,
18:30

LEKUA

Foruen plaza

DESKRIBAPENA

GPS duen mugikor baten laguntzarekin “altxorrak” aurkitzeko jarduera bat da. Groundspeak etxearen Geocaching aplikazioa doakoa da, eta bateragarria Android eta iOS sistemekin.

GOMENDATUTAKO GUTXIENEO ADINA 12 URTEKOA DA.

Izen-ematea irailaren 25ean, ostiralean, 18:30ean izango da Foruen plazako udaletxe zaharraren atean. Bertan, jarraibideak eta aurkitu beharreko kokapen-kopurua emango ditugu. Parte-hartzaileek astebete dute Ablitasko leku, pertsona eta eraikinei buruzko informazioa eta bitxikeriak ematen dituzten geocacheak aurkitzeko.

Urriaren 3an, larunbatean, 12:00etan, Ablitasko gazteluan egiaztapenak egin eta opariak emango dira.

Geocacheak data horretatik aurrera egongo dira eskuragarri, nahi duen orok dibertitu eta Ablitasi eta bere historiari buruz gehiago jakin dezan, baita herria gidarik gabe ezagutzeko prestatu ditugun ibilbideak ere, Interneterako sarbidea duen mugikor baten laguntzarekin bakarrik, QR kodetun autogida gisa.

+INFORMAZIO ETA IZEN-EMATEAK

patrimonioablitas@gmail.com

Aurretik izena ematea: EZ

ANTOLATZAILEA

Ablitasko Udala

Patrimonio Ablitas elkarte

LAGUNTZAILEA

Amigos del Patrimonio Arquitectónico de la Ribera de Navarra “Ribera Nostra” elkarte

BISITA ABLITASKO STA. M^a MAGDALENAREN ELIZARA



DATA ETA ORDUA

Irailak 26, larunbata,
11:00

LEKUA

Ablitasko
Sta. M^a Magdalenaren
eliza

DESKRIBAPENA

Historian zehar izan duen bilakaera, arkitektura, organoa eta kapera, erretaula eta irudi erlijioso desberdinak ikasiko ditugu.

+INFORMAZIO ETA IZEN-EMATEAK

patrimonioablitas@gmail.com

Aurretik izena ematea: EZ

ANTOLATZAILEA

Ablitasko Udala

Patrimonio Ablitas elkarte

LAGUNTZAILEA

Amigos del Patrimonio Arquitectónico de la Ribera de Navarra “Ribera Nostra” elkarte

ANTZINAROKO AZTARNATEGIETAN BARNAKO MENDI-IBILIA ABLITASEN



DATA ETA ORDUA

Irailak 27, igandea,
9:00etatik 13:30era

LEKUA

Ablitasko Foruen plaza

DESKRIBAPENA

Ablitas udalerriko Antzinaroko aztarnategietan barnako mendi-ibilia.

Cabezo de la Mesako oppidum zeltiberiarra, Nafarroako Erriberako “Tarraco – Asturica Augusta” Erromatar Galtzadaren Interpretazio Zentroa eta “Villar de Ablitas” villa erromatarra bisitatuko ditugu. Ibilbidea kultura-etxean amaituko da, villa erromatarreko gela batean zegoen mosaiko zaharberritua ikusteko.

GARRANTZITSUA: NORK BERE EDARIA ETA HAMAIKETAKOA ERAMAN BEHARKO DU.

Gutxigorabeherako ordutegiak: 9:00 Foruen plaza, 9:45 Cabezo de la Mesako oppidum zeltiberiarra, 10:30 erromatar galtzada, 11:15 villa erromatarra, 13:00 kultura-etxea.

+INFORMAZIO ETA IZEN-EMATEAK

patrimonioablitas@gmail.com

Aurretik izena ematea: EZ

ANTOLATZAILEA

Ablitasko Udala

Patrimonio Ablitas elkarte

LAGUNTZAILEA

Amigos del Patrimonio Arquitectónico de la Ribera de Navarra “Ribera Nostra” elkarte

ABLITASKO HISTORIA BELTZA



DATA ETA ORDUA

Irailak 26, larunbata,
20:00

LEKUA

Foruen plaza

DESKRIBAPENA

JARDUERA HAU EZ DAGO GOMENDATUA 12 URTETIK BEHERAKOENTZAT

Ondarea eraikin nabarmenetatik eta natura berezitik harago doa; izan ere, ondarea gertakizun historikoen memoria gordetzea ere bada, eta horrek gertakari ilunenak barne hartzen ditu, herriak normalean ahaztu nahi izaten dituenak.

Patrimonio Ablitas elkarteko kideok ilunabarrean Ablitasko kale eta parajeetan barnako ibilbide bat egitea proposatzen dizuegu, gure herriaren iragana osatzen duten istorio beltzak eta dokumentatutako gertakari historikoak berpizteko. Kontakizun asaldatzaileenak ere gure kultura-ondarearen parte direla jabetzeko ibilbide bat, memoria kolektiboa ikuspegi berri batetik berpiztu, eutsi eta berrirudikatzera gonbidatuz.

+INFORMAZIO ETA IZEN-EMATEAK

patrimonioablitas@gmail.com

Aurretik izena ematea: EZ

JARDUERA INKLUSIBOA

Ibilbidea mugikortasun urriko pertsonentzat irisgarriak diren bideetatik egingo da.

ANTOLATZAILEA

Ablitasko Udala

Patrimonio Ablitas elkarte

LAGUNTZAILEA

Amigos del Patrimonio Arquitectónico de la Ribera de Navarra “Ribera Nostra” elkarte



2026KO ONDAREAREN EUROPAKO JARDUNALDIAK

ALZUZA

ATE IREKIEN JARDUNALDIAK ETA DOAKO SARRERA OTEIZA MUSEOAN



DATA ETA ORDUA

Urriak 2, ostirala,
10:00etatik 15:00etara

Urriak 3, larunbata,
11:00etatik 19:00etara

Urriak 4, igandea,
11:00etatik 15:00etara

LEKUA

Oteiza Museoa, Alzuza

+INFORMAZIO ETA IZEN-EMATEAK

T. 948332074

info@museooteiza.org

Aurretik izena ematea: BAI

ANTOLATZAILEA

Museo Oteiza Museoa

ESCANEANDO A OTEIZA: REIMAGINAR LA SUPERFICIE BISITA-TAILERRA

DATA ETA ORDUA

Urriak 3, larunbata,
10:30etik 12:30era

LEKUA

Oteiza Museoa, Alzuza

DESKRIBAPENA

Bisita Oteiza Museora tailer formatuan, 15 eta 25 urte bitarteko gazteentzat. Jarduera honek bestelako ibilbide bat proposatzen du Oteiza Museoko aretoetan barrena, artistaren obra bistaz ez ezik, materia bertatik bertara harrapatuz ere berrezagutzeko. Eskuzko eskanerrak erabiliz, parte-hartzaileek gainazalak, materialak, testuak eta planoak zeharkatuko dituzte, hurbiletik testurak, xehetasunak eta formak digitalizatzeko.

2026ko urriaren 3a, larunbata, 10:30etik 12:30era

15 eta 25 urte bitarteko gazteentzat (15 lagun gehienez ere).

Garraioa: Iruñetik garraioa eskainiko da, Huarte/Uhartan geldituko da, Oteiza Museora iristea errazteko.

+INFORMAZIO ETA IZEN-EMATEAK

T. 948332074

info@museooteiza.org

Aurretik izena ematea: BAI

ANTOLATZAILEA

Museo Oteiza Museoa

OTEIZA MUSEOA, ONDARE BIZIA

DATA ETA ORDUA

Urriak 4, igandea,
12:00

LEKUA

Oteiza Museoa, Alzuza

DESKRIBAPENA

Oteiza Museoaan barnako ibilbide gidatua.

Jarduera honek Jorge Oteizaren figurara eta obrara hurbiltzea proposatzen du, kultura eta artearen topaleku gisa. Bere pentsamenduan eta sorkuntzan barnako ibilbide gidatu bat planteatzen da, bere proiektu artistikoaren mugarririk garrantzitsuenak aztertuz: figuraziotik hasi eta bukaerako obraren abstrakzio espazialeraino, baita bere ondarearen indarraldia ere.

+INFORMAZIO ETA IZEN-EMATEAK

T. 948332074

info@museooteiza.org

Aurretik izena ematea: BAI

ANTOLATZAILEA

Museo Oteiza Museoa

OTEIZA MUSEOA BARRUTIK. BISITA GIDATUA BILTEGIRA ETA ARTXIBORA

DATA ETA ORDUA

Urriak 2, ostirala,
18:00

LEKUA

Oteiza Museoa, Alzuza

DESKRIBAPENA

Jorge Oteizaren ondare artistiko eta dokumentalarekin egindako lana eta haren kontserbazio-baldintzak sakonago ezagutzeko aukera eskaintzen du jarduerak. Kontserbazio Zerbitzuko eta Ikasketa Zentroko arduradunek gidatuta, normalean jendearentzat itxita dauden espazioetara sartzeko aukera egongo da.

2026ko urriaren 2an, ostiralean, 18:00etan

Gutxi gorabeherako iraupena: 75 minutu. Postu-kopuru mugatua.

+INFORMAZIO ETA IZEN-EMATEAK


T. 948332074

info@museooteiza.org

Aurretik izena ematea: BAI

ANTOLATZAILEA

Museo Oteiza Museoa



2026KO ONDAREAREN EUROPAKO JARDUNALDIAK

AOIZ / AGOITZ

REVIVIENDO GENDULÁIN: RESULTADOS DE LA CAMPAÑA DE EXCAVACIÓN Y OTROS DESPOBLADOS DE LA BAJA NAVARRA



DATA ETA ORDUA

Urriak 2, ostirala,
19:00

LEKUA

Kultura-etxea

DESKRIBAPENA

Gendulain Erdi Aroko herri hustua Agoitz inguruko ondaregune esanguratsuenetako bat da. Abuztuko lehen astean garatutako kanpaina arkeologikoaren helburua antzinako biztanlegune horri buruzko ezagutza zabaltzea izan da, nekropoliaren eta lurpean kontserbatutako egituren azterketan sakonduz.

Jarduerak ikerketa arkeologikoaren bidez desagertutako leku baten memoria nola berreskuratzen den jakiteko aukera ematen du, bai eta kontserbatutako aztarnak lurraldean bizi izan ziren komunitateei buruzko ezagutza-iturri bihurtzen direla ere. Indusketa-kanpainaren emaitzak aurkeztuz, gogoeta egingo da ondare arkeologikoak ondare partekatu gisa duen balioaz, memoria kolektiboa eraikitzeko duen eginkizunaz eta ondare hori kontserbatzeak eta hedatzeak egungo eta etorkizuneko belaunaldientzat duen garrantziaz.

Jarduera bi parte-hartze osagarritan egituratuko da. Lehenik eta behin, indusketaren ardura duen Aranzadi Zientzia Elkarteko lantaldeak esku-hartzean ateratako emaitza nagusiak aurkeztuko ditu, arkeologia-lanak ondare hori interpretatzen eta zaintzen laguntzen duela nabarmenduz. Ondoren, Amaia Legaz arkeologoak (HADÈS Bureau d 'investigations archéologiques) Nafarroa Behereko Erdi Aroko herri hustuen fenomenoak, bilakaera historikoa eta irudikatzen duten ondare-balioa testuinguruan kokatuko ditu.

Saioa amaitzeko, jendeari irekitako solasaldi bat izango da, bertaratutakoen eta espezialisten artean galderak eta hausnarketak partekatzeko gune bat eskainiko duena, herritarren parte-hartzea bultzatuz eta ondarearen ikerketaren eta gizartearen arteko lotura indartuz.

+INFORMAZIO ETA IZEN-EMATEAK

Ayuntamiento de Aoiz T. 948 336005

prepirineo@cederna.es

Aurretik izena ematea: EZ

JARDUERA INKLUSIBOA

Kultura-etxea irisgarria da mugikortasun urriko pertsonentzat, eta haientzat gordetako tokiak daude.


ANTOLATZAILEA

Agoizko Udala

LAGUNTZAILEA

Aranzadi Zientzia Elkartea

Laguntzaileak: HIDEA, Aranzadi Zientzia Elkartea eta Hadès.



KUADRIKETA

DATA ETA ORDUA

Urriak 3, larunbata,
11:30

LEKUA

Eskola publikoa

DESKRIBAPENA

Koadrilen arteko lehiaketa ez lehiakorra herritarren arteko harremanak sendotzeko (urriaren 3an, larunbatean, goizez)

+INFORMAZIO ETA IZEN-EMATEAK

T. 636306853

Aurretik izena ematea: BAI

JARDUERA INKLUSIBOA

ANTOLATZAILEA

Nafarroako Erdialdea Garatzeko Partzuergoa
Nafarroako Gobernua

LAGUNTZAILEA

Artaxoako Udala

SAUDE ABESBATZAREN KONTZERTUA

DATA ETA ORDUA

Urriak 3, larubata,
20:00

LEKUA

Reyno de Artajona

DESKRIBAPENA

Abesbatza-kontzertua

+INFORMAZIO ETA IZEN-EMATEAK

T. 636306853

Aurretik izena ematea: BAI

JARDUERA INKLUSIBOA

ANTOLATZAILEA

Artaxoako Udala

‘QUE NOS QUITEN LO ROBAO’ ANTZEZLANA

DATA ETA ORDUA

Urriak 4,
19:30

LEKUA

Reyno de Artajona

DESKRIBAPENA

Komedia antzezlan

+INFORMAZIO ETA IZEN-EMATEAK

T. 636306853

Aurretik izena ematea: BAI

JARDUERA INKLUSIBOA

ANTOLATZAILEA

Artaxoako Udala



2026KO ONDAREAREN EUROPAKO JARDUNALDIAK

AURITZ / BURGUETE

AURITZ / BURGUETEKO BABES-EREMUA BERRESKURATZEA



DATA ETA ORDUA

Urriak 3, larunbata,
18:00
Igandea, urriaren 4a,
12:00

LEKUA

Auritz/Burgueteko
herrigunea, Udaletxeko
plazatik abiatuta.
Eguraldiak galaraziko
balu, kultur etxean.

DESKRIBAPENA

1172. urtean, herritarrei forua ematean gotortzeko eskubidea ematen zitzaienetik, hainbat mendetan babes-eremu bat existitu izanari buruzko dokumentazioa dago. Ugariena Simancaseko Artxiboan dago, eta XVII. mendekoa da. Estrategia militarreko tokitzat hartu ez zenez, esparruak gainbehera izan zuen 1877ra arte. Orduan, Udalak esparru osoa desegitea erabaki zuen, eta ordutik aurrera ahaztu egin zen.

2007tik aurrera, herrigunea IKO izendatu zela-eta, azpiegitura berreskuratzeko ideia sortu zen. Hainbat urrats ematen hasi ziren, eta, besteak beste, hondatuta zeuden mihise batzuk berreskuratu ziren eta informazioa bildu egin zen.

2023an, berreskuratzeko asmo handiko proiektu bat aurkeztu zen Industria eta Turismo Ministerioaren deialdi batera, hautatua izan zen, eta aurten Vianako Printzeak ikuskatutako lanak egiten ari dira. Proiektu honekin batera beste batzuk ere gauzatuko dira, ondoz ondoko faseetan.

+INFORMAZIO ETA IZEN-EMATEAK

José Irigaray Gil.
T. 606335992
ayuntamiento@burguete.es
Aurretik izena ematea: EZ

ANTOLATZAILEA

Ayuntamiento de Burguete



AZAGRAKO SAN SALBATORE PARROKIA-ELIZA: HISTORIA, ARKITEKTURA, ARTEA, ERLIJIOA ETA NORTASUNA



DATA ETA ORDUA

Urriak 3, larunbata,
18:00

LEKUA

Salvatore parrokia (ate
nagusia). Azagrako
Salvatore plaza.

DESKRIBAPENA

Luis Sola Gutiérrez jn. tokiko historialariak
gidatutako bisita

San Salvatore eliza 1577ko martxoaren 3an ireki zen gurtzarako, eta, datorren 2027an ospatuko dugun 450. urteurrenara azkar doan dama zahar bati dagokion bezala, zaharberritze sakon baten beharrean dago, urte askoan Azagra hiribildu historikoaren eraikin enblematikoena izaten jarrai dezan. Aje ugari ditu: batzuk begi hutsez ikus daitezke; beste batzuk egiturazkoagoak eta ezkutuagoak dira.

Horregatik, hitzaldi honetan, gure herritarra den Juan Luis Sánchez Salvadorrek, gaur egungo Olmoko Ama Birjinaren basilikako arkitektoa denak, parrokia-tenpluak dituen patologia nagusiak argitzen ahaleginduko da. Berriz ere beharrezko segurtasuna eta sendotasuna ematea izango da bere ondare artistiko aberatsaren erakusgarriarik onena, batez ere erretaula errenazentista berantiarraz eta erretaula barrokoen kintetoaz osatua, estilo churrigueresko edo kastizista nabarmenekoa, Carmen Heredia Moreno adituaren iritziz, Nafarroako barrokoaren multzo onenetakoa osatzen duena.

Aipatutako arkitektura-gaiez eta emango diren zertzelada historiko eta artistikoez gain, hitzaldiaren amaieran, San Salvatore eliza azagararren atzoko, gaurko eta biharko belaunaldien arteko lotura nagusia dela ikusaraziko da. Elizara bertaratzeko gonbita egiten dugu, informazioa bertatik bertara eskuratzeko. Ondorioz, Azagrarekin lotura dugula sentitzen dugun guztioi dagokigu, gure jatorria edo herrian daramagun denbora edozein dela ere, erlijiotik gaindikoa den ondare-ondasuna zaindu eta babestea, kultura- eta nortasun-dimentsioa ere aintzat hartzeko. Azken finean, eliz atariaren eta galeriaren eta dorrearen irudi hori, zalantzarik gabe, gure herriko ikonoenetako bat da.

+INFORMAZIO ETA IZEN-EMATEAK

Javier Paz.

T. 679109376

casadecultura@azagra.es


Aurretik izena ematea: EZ

ANTOLATZAILEA

Azagrako Udala

LAGUNTZAILEA

Luis Sola Gutiérrez. Azagrari buruzko Jardunaldien eta Cuadernos Azagresesen sustatzailea.



2026KO ONDAREAREN EUROPAKO JARDUNALDIAK

BERBINZANA

BIZITZA BURDIN AROAN. ARTISAUTZA BIZIBERRITZEA



DATA ETA ORDUA

Urriak 4, igandea,
12:00

LEKUA

Berbinzana, Las Eretas
Museoa eta Aztarnategi
Arkeologikoa

DESKRIBAPENA

Burdin Aroko bizitzaren berri ematea, tresna eta lanabes batzuen bidez, eta eguneroko erabilerei, jantziei, apaingarriei, elikadurari eta abarri buruzko azalpenak ematea. Garaiko ezpatak, lantzak, tresnak eta eguneroko beste objektu batzuk ikusi eta ukitu ahal izango dira.

Artisau batek Antzinaroko prozesuak erabiliz nola fabrikatu dituen azalduko digu.

+INFORMAZIO ETA IZEN-EMATEAK

Raquel.

T. 617189957

info@eretas.es

Aurretik izena ematea: BAI (25 POSTU)

JARDUERA INKLUSIBOA

Helduentzako eta haurrentzako jarduera. Irisgarria desgaitasuna duten pertsonentzat.


ANTOLATZAILEA

Las Eretas Museoa eta Aztarnategi Arkeologikoa
Berbinzanako Udala

LAGUNTZAILEA

Rutas Vivamus


Vida primitiva



2026KO ONDAREAREN EUROPAKO JARDUNALDIAK

CABANILLAS

BISITA GIDATUA JERUSALEMGO
SAN JOAN ELIZARA ETA
BELVERREKO DOLARERA



DATA ETA ORDUA

Urriak 3, larunbata,
10:30etik 13:30era
Urriak 4, igandea,
10:30etik 13:30era

LEKUA

Cabanillas

DESKRIBAPENA

Egitarauak honakoak bisitatzea jasotzen du:

Erlijio-ondarea: Jerusalemgo San Joan ordenako eliza erromanikoa, genero horretako bakarra Nafarroako Erriberan.

Industria-ondarea: XIX. mendeko Belverreko dolarea, genero horretako bakarra eta Interes Kulturalako Ondasun izendatua.


+INFORMAZIO ETA IZEN-EMATEAK

cabanillasromanico@gmail.com

Aurretik izena ematea: BAI

ANTOLATZAILEA

Francisco Sierra Urzaiz



2026KO ONDAREAREN EUROPAKO JARDUNALDIAK

CASTEJÓN

ATE IREKIEN JARDUNALDIA

CASTEJÓNGO MUSEOAN



DATA ETA ORDUA

Irailak 25, 26 eta 27,
10:00etatik 14:00etara

Urriak 2, 3 eta 4,
10:00etatik 14:00etara

LEKUA

Castejóngo Museoa

DESKRIBAPENA

Irailak 25, 26 eta 27. Urriak 2, 3 eta 4 – Europako Ondarearen Jardunaldiak Castejónen. Tokia: Castejóngo Museoa.

Egitaraua.

Osteguna, 24 – 19:30 poemen irakurraldia Raisa Mayorga Oviedorekin “Muros del silencio”.

Ostirala, 25 – 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara Ate irekiak: bisita gidatuak Ezagutu gure trenbide- eta arkeologia ondarea.

Ostirala, 25 19:30 Hitzaldia – trenbidea JI Miguel Amóztegui Del Cantábrico al Mediterráneo Un viaje a pie por los caminos del hierro de la península.

Larunbata, 26 – 10:00etatik 14:00etara Turismoaren Nazioarteko Eguna 2026 “Agenda digital e inteligencia artificial para redefinir el turismo”

+INFORMAZIO ETA IZEN-EMATEAK

museo@castejon.com

T. 948 770065


Aurretik izena ematea: BAI

JARDUERA INKLUSIBOA

Bai. Jarduerak eta museoa egokituta daude.

ANTOLATZAILEA

Castejóngo Udala - Kulturako Arloa



ATE IREKIEN JARDUNALDIA

DATA ETA ORDUA

Irailak 25, ostirala,
11:00 (gaztelaniaz)
12:30 (euskaraz)

Urriak 2, ostirala,
11:00 (gaztelaniaz)
12:30 (euskaraz)

LEKUA

Nafarroako Artxibo
Garaikidea.

Ctra. de Zaragoza, km. 3



DESKRIBAPENA

Artxibo Garaikideko instalazioetarako bisita gidatuak

+INFORMAZIO ETA IZEN-EMATEAK

T. 848 429 721

archivo.contemporaneo@navarra.es

Aurretik izena ematea: BAI

ANTOLATZAILEA

Nafarroako Artxibo Garaikidea

TIPO FORMALAK

DATA ETA ORDUA

Urriak 2, ostirala

LEKUA

Nafarroako Artxibo
Garaikidea.

Ctra. de Zaragoza, km. 3

DESKRIBAPENA

Valle del Ebro BHIko ikasleek egindako hezkuntza-
proiektuaren aurkezpena (2024-2025 ikasturtea)

Tipos Formales, NAGren bidez.

Nafarroako errotulazio komertziala ondare grafiko gisa

babesteko ekimena da.

+INFORMAZIO ETA IZEN-EMATEAK

T. 848 429 721

archivo.contemporaneo@navarra.es

Aurretik izena ematea: EZ

ANTOLATZAILEA

Nafarroako Artxibo Garaikidea

Tudelako Valle del Ebro BHI

BISITA GIDATUA HONDAKIN PALEONTOLOGIKOETARA – ARRAFELA LEIZEKO BISONTEA – ARKEOLOGIA FUNTSAK



DATA ETA ORDUA

Irailak 26, larunbata,
11:30

Urriak 3, larunbata,
11:30

LEKUA

Nafarroako Gobernuaren
Arkeologia Funtsak

Ctra. de Zaragoza, km. 3

DESKRIBAPENA

Arkeologia Funtsetarako bisita, ondare
paleontologikora bideratua, Urbasa mendilerroko
Arrafela leizean Kalkolitoaren amaieran datatutako
(duela 4000 urte inguru) bisonte ale bat berreskuratu
zela eta. Gutxi gorabeherako iraupena 1,5 h, ikus-
entzunezko emanaldiarekin.

IZENA EMAN BEHAR DA.

+INFORMAZIO ETA IZEN-EMATEAK

arqueologia@navarra.es


Aurretik izena ematea: BAI

JARDUERA INKLUSIBOA

Gurpil-aulkian zirkula daiteke.

ANTOLATZAILEA

Kultura Zuzendaritza Nagusia - Vianako Printzea
Erakundearen Ondare Historikoaren Zerbitzuko
Erregistro, Ondasun Higigarri eta Arkeologia Atala.



2026KO ONDAREAREN EUROPAKO JARDUNALDIAK

CORTES

CHARLA ‘LA CAMPAÑA ARQUEOLÓGICA DE 2026 EN EL ALTO DE LA CRUZ: RESULTADOS Y PERSPECTIVAS’

DATA ETA ORDUA

Irailak 25, osteguna, 19:00

LEKUA

Kultura-etxeko ekitaldien aretoa.

+INFORMAZIO ETA IZEN-EMATEAK

T. 676 381 563

Aurretik izena ematea: BAI

CORTESKO UDAL PARKERAKO BISITA GIDATUA

DATA ETA ORDUA

Irailak 25, osteguna, 11:00

LEKUA

Cortesco udal parkerako

+INFORMAZIO ETA IZEN-EMATEAK

Aurretiaz izena emateko, deitu 679095782 zenbakira.

Aurretik izena ematea: BAI

CORTESKO GAZTELUA GAUEZ BISITATZEA

DATA ETA ORDUA

Irailak 26, ostirala, 23:00

LEKUA

Cortesco gaztelua

+INFORMAZIO ETA IZEN-EMATEAK

T. 676 381 563

Aurretik izena ematea: BAI



DOAKO BISITA GIDATUAK
'JULIO CARO BAROJA' NAFARROAKO
MUSEO ETNOLOGIKORA

DATA ETA ORDUA

Irailak 26, larunbata,
17:00 (euskaraz)

Irailak 27, igandea,
12:00 (gaztelaniaz)

LEKUA

JCBNME. Merkatondoa
industriagunea 13, 4.
nabea, Estella-Lizarra
(Nafarroa)

DESKRIBAPENA

Jarduera honetan, 'Julio Caro Baroja' Nafarroako Museo Etnologikoaren bilduma, instalazioak eta zerbitzuak ezagutzeko aukera egongo da.

+INFORMAZIO ETA IZEN-EMATEAK

T. 948 553 556

Ordutegia: 9:00etatik 12:30era, astelehenetik ostiralera. Izen-emateak irailaren 7tik aurrera.

museo.etnologico.navarra@navarra.es

Aurretik izena ematea: BAI

ANTOLATZAILEA

Nafarroako Gobernua

REDIBUJAR:
MARRAZKETA-TAILERRA



DATA ETA ORDUA

Urriak 3, larunbata,
11:30etik 13:00etara

LEKUA

Gustavo de Maeztu Museoa

DESKRIBAPENA

Marrazketa-tailer teoriko eta praktiko honen bidez, kulturaren transmisioarekin eta denbora-ildo batekin duen harremanarekin lotutako alderdiei buruz hausnartzen saiatuko gara. 2026ko Ondarearen Europako Jardunaldietan proposatutako kontzeptuak eta marrazketa presentziala dela kontuan hartuta, ondare materialarekin eta immaterialarekin zerikusia duten gaiak islatuko dira.

Maezturen lan grafikoarekin bat eginez, marrazkitik lan egingo dugu eta Nafarroako Errege-Erreginen Jauregia izango dugu erreferente eta abiapuntu, Museoa hartzen duen estilo erromanikoko eraikin historikoa.

+INFORMAZIO ETA IZEN-EMATEAK

T. 948 546 037

Aurretik izena ematea: BAI

ANTOLATZAILEA

Estella-Lizarrako Udala

Gustavo de Maeztu Museoa

LAGUNTZAILEA

Nafarroako Gobernua

Museoen Sarea

ONDAREA BERRASMATZEN.
TXATA

DATA ETA ORDUA

Urriak 4, igandea,
11:30etik 13:30era

LEKUA

Gustavo de Maeztu Museoa

DESKRIBAPENA

Denboraren joanak mugimendu sozial, estetiko eta filosofikoak eragiten ditu. Hori dela eta, ondarea, gizadiak mendeetan zehar utzitako aztarna esanguratsua, kontzeptu aldaketen eta interpretazio berrien mende dago. Arkitekturak eta arte plastikoek funtzioak eta esanahiak aldatzen dituzte, eta, beraz, ikuspegi eguneratuen beharra sortzen da, ulertzeko eta gozatzeko.

+INFORMAZIO ETA IZEN-EMATEAK

T. 948 546 037

Aurretik izena ematea: EZ

ANTOLATZAILEA


Gustavo de Maeztu Museoa

Estella-Lizarrako Udala

LAGUNTZAILEA

Nafarroako Gobernua

Museoen Sarea



2026KO ONDAREAREN EUROPAKO JARDUNALDIAK

ESTERÍBAR

AHAZTUA IZATETIK BALIOA EMATERA: EUGIKO MUNIZIOEN ERREGE FABRIKA



DATA ETA ORDUA

Urriak 3, larunbata,
11:00

LEKUA

Olondo Erreferentzia
Historikoko Zentroa
(Eugin)

DESKRIBAPENA

Bisita gidatua Eugiko Munizioen Errege Fabrika aztarnategi arkeologikoan barrena, planifikatutako ibilbide batean zehar. Ibilbide horretan, haren historia, bizimoduak, enpleguak eta lanbideak ezagutuko dira, bai eta zaharberritzeko eta balioa emateko egin diren arkeologia-lanak ere, hondakinak eta egindako lana ulertzen laguntzen duten bitarteko grafikoekin.

+INFORMAZIO ETA IZEN-EMATEAK

T. 628 05 99 68 / 948 30 40 47
(8:00etatik 15:00etara, astelehenetik ostiralera).

concejodeeugi@gmail.com

Aurretik izena ematea: BAI

ANTOLATZAILEA

Eugiko kontzejua



2026KO ONDAREAREN EUROPAKO JARDUNALDIAK

FALCES

PILON: BIZIRIK DIRAUCEN TRADIZIOA



DATA ETA ORDUA

Irailak 25, ostirala,
15:30etik 18:00etara

Irailak 26, larunbata,
10:00etatik 13:00etara

Irailak 27, igandea,
10:00etatik 13:00etara

Urriak 2, ostirala,
15:30etik 18:00etara

Urriak 3, larunbata,
10:00etatik 13:00etara

Urriak 4, igandea,
10:00etatik 13:00etara

LEKUA

Falcesko Museo Etxea.
Progreso k. 8

DESKRIBAPENA

Ezagutu Pilongo Entzierroaren esentzia, iragana, oraina eta etorkizuna uztartzen dituen esperientzia murgiltzaile baten bidez. Murgildu Pilonen Museoan ikusgai dauden kontakizun, idazki eta egitarau historikoen erakusketa batean.

Oroitzapenak berpizteko, gure nortasuna mantenduz eusteko eta belaunaldiz belaunaldi Falcesen bihotza markatzen jarraitzen duen tradizioa berri irudikatzeko jarduera.

+INFORMAZIO ETA IZEN-EMATEAK

Turismo Bulegoa
T. 698 95 37 41 (arreta telefonoz eta whatsapppez)

Aurretik izena ematea: EZ

JARDUERA INKLUSIBOA

Gurpil-aulkian doazen pertsonentzako sarrera dauka.

ANTOLATZAILEA

Falcesko Udala / Turismo Bulegoa

EL CASTILLO DE LOS MOROS: 1.200 AÑOS DE HISTORIA



DATA ETA ORDUA

Urriak 3, larunbata,
19:00

LEKUA

Pedro Iturralde Gizarte
Etxea

DESKRIBAPENA

Mairuen gazteluaren historiari buruzko aurkezpena, non 860tik aurrerako gertakarien berri emango den Ibn Al Athir kronikari musulmanak aldarrikatuko baitzuen urte hartan musulmanek «Faltzes eta bere gaztelua» konkistatu zutela. Gotorleku hori Mairuen gaztelua deituko zen arren, gutxienez jatorri bisigodoa zuen, aurkikuntza batzuen arabera, haitz hori erromatarrek ere okupatu ahal izan baitzuten.

Hitzaldiak bi zati izango ditu. Lehenengoak gazteluaren historia militarra kontatuko du, eta bigarrenak jatorri bisigodoa eta erromatarren balizko presentzia aztertuko ditu.

+INFORMAZIO ETA IZEN-EMATEAK

Turismo Bulegoa
T. 698 95 37 41 (arreta telefonoz eta whatsapppez)

oficinaturismo@falces.org

Aurretik izena ematea: BAI

JARDUERA INKLUSIBOA

Mugikortasun urriko pertsonentzako irisgarria

ANTOLATZAILEA

Faltzesko Udala



2026KO ONDAREAREN EUROPAKO JARDUNALDIAK

FUSTIÑANA

KULTURA, NATURA,
ANTROPOLOGIA ETA HISTORIA
LANTZEKO MENDI-IBILIA



DATA ETA ORDUA

Urriak 3, larunbata,
8:00etatik 12:00etara

LEKUA

Errege Bardea. Topagunea:
Nafarroako Foru Aldundia
plaza. Fustiñana.

DESKRIBAPENA

Jarduera honetan, zailtasun-maila baxuko mendi-ibilia egingo da. Marrapate arrain-labearen berreraikuntza bisitatuko dugu eta, ondoren, Bardena Negran kokatutako brea-labearen hondakinak.

Nor bere ibilgailuan gerturatuko gara eta, ondoren, 8 kilometro inguruko ibilaldi bat egingo dugu nekazaritzako bideetan barrena. Aipatutako bi instalazioak bisitatuko dira eta hainbat gairi buruzko azalpenak emango dira: flora, nekazaritza- eta abeltzaintza-erabilerak, lurraren litologia, higadura-agenteen ekintza eta horien ondoriozko formak, eta Bardeako bizimodu tradizionalak, txabolen etaazienda-korten hondakinen bidez. Han bertan antzinako erlauntzak eta baltsak ere ikusten dira.

+INFORMAZIO ETA IZEN-EMATEAK

asociacioncingala@gmail.com

Aurretik izena ematea: BAI

ANTOLATZAILEA

Cingala kultur elkarte

LAGUNTZAILEA


Fustiñanako Udala



2026KO ONDAREAREN EUROPAKO JARDUNALDIAK

GALLIPIENZO / GALIPENTZU

PATRIMONIO CEREBRAL EN RIESGO:
REVIVIR, RESISTIR Y REIMAGINAR
EN TIEMPOS DE PANTALLAS, REDES
SOCIALES E INTELIGENCIA ARTIFICIAL.



DATA ETA ORDUA

Irailak 26, larunbata,
12:00

LEKUA

ICARRA Auzo Elkarteko
aretoa, Galipentzu
Zaharra

DESKRIBAPENA

Gaur egun planteatzen den teorietako bat da mugikorren, sare sozialen eta pentsamendua AAreⁿ esku uztearen eragina adingabe eta heldu gazteen gaitasun kognitiboak suntsitzen ari dela: horrek bizitzan zehar ikasteko gaitasun txikiagoa, erreserba kognitibo txikiagoa, erresistentzia kognitibo txikiagoa eta erresilientzia kognitibo txikiagoa ekarriko ditu. Gainera, ondare immaterial asko pertsonen burmuinetan gordetzen dira.

David Ezpeleta neurologoak, Espainiako Neurologia Elkarteko lehendakariordeak, emango du hitzaldia.

+INFORMAZIO ETA IZEN-EMATEAK

gallipienzo1100@gmail.com

Aurretik izena ematea: EZ

ANTOLATZAILEA

ICARRA Auzo Elkartea, Galipentzu Zaharra




NECRÓPOLIS DE MONTEVIEJO.

TÉCNICAS APLICADAS AL REGISTRO

ARQUEOLÓGICO Y ESTUDIOS

INTERDISCIPLINARES



DATA ETA ORDUA

Urriak 2, ostirala,
19:00

LEKUA

Birjina Zuria ermita
Zurialdea k. 31, 31395
Garínoain, Nafarroa

DESKRIBAPENA

Abiadura Handiko Trenaren eraikuntza lanetan, Garínoain udalerrian Monteviejo aztarnategiko nekropolia aurkitu da, 2025 eta 2026 bitartean hainbat hilabetez indusketa arkeologikoak egin direna.

50 minutu inguruko dibulgazio-hitzaldi baten bidez, aztarnategi berezi hori dokumentatzeko eta aztertzeko aplikatzen ari diren arkeologiako erregistro-teknikak hurbildu nahi zaizkie entzuleei: droneekin egindako argazkiak, jasotze fotogrametrikoak, SIG tresnak, marrazkiak, etab.

Nekropoliaren eta hura eraiki eta erabili zuten pertsonen ezagutza sakontzen laguntzen diguten diziplina arteko ikerketa aurreratuenak ere azalduko ditugu.

+INFORMAZIO ETA IZEN-EMATEAK

T. 948 151 427

teselarqueologia@gmail.com

Aurretik izena ematea: EZ

ANTOLATZAILEA

Garínoaingo Udala
Tesela Arqueología



2026KO ONDAREAREN EUROPAKO JARDUNALDIAK

IGÚZQUIZA

URBIOLAKO ONDAREARI

BURUZKO IBILALDIA

DATA

ETA

ORDUA

Urriak 3, larunbata,
10:00



LEKUA

Urbiola

DESKRIBAPENA

- Urbiolako ondareari buruzko ibilaldia:
- Adarreta herri hustua zegoen tokia bisitatzea
 - Gizakie Berdeen leizea
 - Iragan erromatarra: erromatarren lorratza

Jardunaldiari amaiera emateko kultura-jarduera bat egingo da Urbiola plazan.

+INFORMAZIO

ETA

IZEN-EMATEAK

administracion@ayuntamientodeiguzquiza.es

Aurretik izena ematea: EZ

ANTOLATZAILEA

Iguzquizako Udala

LAGUNTZAILEA

Urbiolako Kontzejua



2026KO ONDAREAREN EUROPAKO JARDUNALDIAK

JAVIER

LUX ET DEVOTIO



DATA ETA ORDUA

Irailak 26, larunbata,
10:00etatik 19:00etara

18:00, Juan José
Ayaperen “El enigma del
pergamino: secretos,
poder y luces de la Edad
Media” hitzaldia

LEKUA

Javierko Gazteluko Museoa

DESKRIBAPENA

“Lux and Devotio” jarduera Juan José Ayape Puyales kultur dibulgatzaileak zuzenduko du, Erdi Aroko kodexetan aditua baita. Helburua argiztatutako Erdi Aroko kodexen mundu hermetikoa publiko orokorrari hurbiltzea da, eskuizkribu horiek, hizkuntza teknikoa eta akademikoa alde batera utzita, kontakizun liluragarri, bisual eta edonorentzat eskuragarri bihurtuz, aldez aurreko ezagutza-maila gorabehera.

Egun osoan zehar, Gazteluko areto nagusian, hainbat ale ikusi ahal izango dira, espezialistaren azalpenarekin batera.

Eguna amaitzeko, 18:00etan, Juan José Ayapek “El enigma del pergamino: secretos, poder y luces de la Edad Media” hitzaldia emango du.


+INFORMAZIO ETA IZEN-EMATEAK

Javierko gaztelua
T. 948-884024

Aurretik izena ematea: EZ

ANTOLATZAILEA

Javierko gaztelua
Divulgatio Codicis



LANZKO

MEATEGI ERROMATARRERA KO

BISITA



DATA ETA ORDUA

Urriak 3, larunbata,
10:00

LEKUA

Topagunea Lanzko
ostatuaren ondoan

DESKRIBAPENA

Herrigunean dagoen Lanzko ostatutik abiatuko da, erromatarren garaian kobrea erauzteko erabiltzen zen meategira joateko. Lurpeko meatzaritzako mundu zabal baten ondoan aire zabaleko ustiategi handi bat dago, ibilbidean zehar ikusi ahal izango dena. Ezinbestekoa da mendian ibiltzeko ohitura izatea. Ibilaldiak 2 eta 3 ordu arteko iraupena du. Mendiko oinetakoak eta linterna eramatea komeni da.

+INFORMAZIO ETA IZEN-EMATEAK

arqueologia@navarra.es

Aurretik izena ematea: BAI

ANTOLATZAILEA

Kultura Zuzendaritza Nagusia - Vianako Printzea
Erakundearen Ondare Historikoaren Zerbitzuko Ondasun
Higigarrien eta Arkeologiaren Erregistro Atala.

LAGUNTZAILEA

Lanzko Meatzegunearen Proiektuko teknikariak: Teresa
Lacosta, María Fernández eta Arturo Hermoso de
Mendoza



2026KO ONDAREAREN EUROPAKO JARDUNALDIAK

LERGA

LERGAKO ZABALEGUI FAMILIAREN ABESBATZA-KONTZERTUA

DATA ETA ORDUA

Irailak 26, larunbata,
17:00

LEKUA

Abaiz, Lergatik
(Nafarroa) 3 kilometrora
dagoen hustutako herri
bateko elizan.

DESKRIBAPENA

Musika-kontzertua.

+INFORMAZIO ETA IZEN-EMATEAK

amigosdeabaiz@gmail.com

Aurretik izena ematea: EZ

ANTOLATZAILEA

Abaizko Lagunak Elkartea



2026KO ONDAREAREN EUROPAKO JARDUNALDIAK

LIÉDENA

AHOTSAK GURE HARRIEN ARTEAN



DATA ETA ORDUA

Larunbata, urriaren 3a,
17:30

LEKUA

Liédenako villa
erromatarra. Pirinioko
autobidea (A-21), 39.
irteera.

DESKRIBAPENA

“Dúo Estrella” taldeak bisitariak musikarekin
girotuko ditu ingurune paregabe batean.

+INFORMAZIO ETA IZEN-EMATEAK

T. 619 993 400

liedenavarios@gmail.com

Aurretik izena ematea: EZ

JARDUERA INKLUSIBOA

Oso irisgarria da mugikortasun urriko pertsonentzat.

ANTOLATZAILEA

Liédenako Udala



2026KO ONDAREAREN EUROPAKO JARDUNALDIAK

LODOSA

LODOSAKO LEIZEAK, “GARAI BATEKO BIZIMODUA”

DATA ETA ORDUA

Irailak 26, larunbata,

LEKUA

Lodosako leizeak, “La Peña” izenez ezagutzen den mendian

DESKRIBAPENA

Jardunaldi hauetan, Lodosako leizeetako bizimodua irudikatuko da, izan ere, Lodosako jende xumea austeritatean bizi zen Udalak etxea izan zezaten lagatako mendi zati batean. Etxea interesatuaren senideek eta herritarrek berek sortzen zuten, eta pikotxarekin eta palarekin harkaitzean induskatzen zuten, mendi zati bat etxe bihurtu arte.

Bizimodua mantsoa zen: goizak landetan, emakumeak senarrari landan laguntzen, etxean lan egiten edo ibaian garbitzen; eta haurrak kalean jolasean inolako arriskurik gabe, eskolan edo mendiko eremuak ezagutzen, zoriontsu ziren beren errealitatearekin. Jardunaldi hauekin Lodosan bizi izan zen errealitate bat irudikatuko dugu, leizeetako etxeak bisita daitezke, pikilloa ikatzez erretzeko tradizioaren lekuko izan, piper luzeak kordatzea, urte haietako laborantzarako lanabesak eta nekazaritza-neurriak ikusi, herriko lagun talde batek berreskuratutako antzinako abestiak entzun, etab. Lodosako boluntarioei esker da hori dena posible.

Goizean, 10:30 edo 11: 00 aldera, Lodosan urak eta Ebro ibaiak duten garrantziari buruzko bisita gidatua egiteko aukera egongo da (aldez aurretik izena eman behar da 948693642 telefonoan edo desarrollolocal@lodos.es helbide elektronikoan).

Aurten, iaz bezala, familia osoarentzako antzezlan dibertigarri bat ikusi ahal izango da, antzerki-konpainia bat duen Lodosako mutil batek antzeztua eta bisita gidatu profesionalak izango dituen. Bisitariak leizeetara hurbiltzen dituen trentxo bat dugu, eta begizta eramangarriak entzumen-desgaitasuna edo entzumen murriztua duten pertsonentzat, eta in situ komunak, horietako bat MUPentzat.

+INFORMAZIO ETA IZEN-EMATEAK

T. 948 693 642 / 689 369 303

desarrollolocal@lodos.es

Telefono horietan jar zaitezkezte gurekin harremanetan eta ekitaldiarekin, ordutegiekin, jardurekin eta bestelakoekin lotutako informazioa hemen kontsultagai egongo da www.lodos.info helbidean eta Instagramen ([lodos_info](https://www.instagram.com/lodos_info)).

Aurretik izena ematea: EZ

JARDUERA INKLUSIBOA

Entzuteko zailtasunak dituzten pertsonentzako begiztak ditugu, gidak mikro bat izango du eta erabiltzaileek hargailua izango dute, lepoko gisa zein kokleako inplanteetara konektatuta. Komun kimikoak daude, horietako bat MUPentzat da (mugikortasun urriko pertsonak), eta trentxo turistiko bat dugu, haurrak eta adinekoak ekitaldira hurbilduko dituen.

ANTOLATZAILEA

Lodosako Udala eta boluntario mordo bat

LAGUNTZAILEA

Xendazeletasun eta mendi kluba (ogi-mamiak egingo dituzte)

Jardunaldietan kolaboratzen duten emakume boluntarioak (12 inguru)

Merche Roldánen kuadrilla

Mariví Sevilla (realiza la visita guiada “Ruta del agua”)

La Plazuela peña, karta-jokoak antzeztea kantuan


Benito Salvatierra (Lodosako jolas tradizionalak irakatsiko ditu: tangailoa, etab.)

Grupo de Sevillanas de Lodosa, antzezpenean kolaboratuko du

Jonás Romero, “zurrapapotea” prestatuko du, ardoz, azukrez, kanelaz eta sasoiko frutaz egindako Lodosako edari tradizionala.

Jakina, Lodosako udal-brigada, haiek gabe ezinezkoa izango bailitzateke hau antolatzea.

Antonio Romero (Norias etxea, uraren ibilbidea bisitak)



2026KO ONDAREAREN EUROPAKO JARDUNALDIAK

MAÑERU

MAÑERUKO SANJOANDARREN ENKOMIENDA LAN ARKEOLOGIKOEI BURUZKO NOBEDADEAK ETA AURRERAPENEN EGOERA

DATA ETA ORDUA

Irailak 26, larunbata,
18:30

LEKUA

Gazte Zentroa

DESKRIBAPENA

Carlos Zuza eta Nicolás Zuazua Mañeruko (Bargotako komentua) Sanjoandarren Enkomierendako aztarnategiko lan arkeologikoen arduradunak azken nobedadeak eta azken urte honetan egindako indusketen aurrerapenen egoera aurkeztuko dituzte.

Mañeruko ondarea ikertzeko eta balioztatzeko proiektu garrantzitsu honen bilakaera eta egindako aurkikuntzak bertatik bertara ezagutzeko abagune paregabea.

+INFORMAZIO ETA IZEN-EMATEAK

maneru@valdemaneru.es

Aurretik izena ematea: EZ

ANTOLATZAILEA

Ayuntamiento de Mañeru/Mañeruko Udala
Tesela Arqueología



GALERÍAS O PUENTES DEL SISTEMA DEFENSIVO MEDIEVAL DE OLITE/ERRIBERRI

DATA ETA ORDUA

Ostirala, irailaren 25a,
20:00etan

LEKUA

Kultura-etxea

DESKRIBAPENA

Erdi Aroko defentsa sistemari buruzko hitzaldia Javier Corcín Ortigosa Erriberriko historialariak emana. Gaur egun, galeria horiek gune bisitagarri gisa berreskuratu dira.

+INFORMAZIO ETA IZEN-EMATEAK

Ángel Guerrero

T. 628734023 . aguerrero@olite.es

Casa de Cultura

T. 948740772 . casadeculturaolite@gmail.com

Aurretik izena ematea: EZ

JARDUERA INKLUSIBOA

Herritar guztientzako hitzaldia

ANTOLATZAILEA

Olite/Erriberriko Udala

LAGUNTZAILEA

Javier Corcín Ortigosa

ERDI AROKO GALERIETARAKO BISITA GIDATUA



DATA ETA ORDUA

Larunbata, irailak 26,
12:00etatik 14:00etara

LEKUA

Erdi Aroko galeriak.
Karlos III.a plaza

DESKRIBAPENA

Erdi Aroko galerietarako bisita gidatua. Bertan, Erdi Aroko defentsa-sistemak gaurdaino izan duen bilakaera azalduko da.

+INFORMAZIO ETA IZEN-EMATEAK

T. 948 012 012

Aurretik izena ematea: BAI

ANTOLATZAILEA

Olite/Erriberriko Udala

LAGUNTZAILEA

Javier Corcín Ortigosa

MASTERCLASS: BEIRATE NOLA EGIN



DATA ETA ORDUA

Irailak 26, larunbata,
11:00

Larunbata, urriak 3,
11:00

LEKUA

Rúa Romana 12.
Olite/Erriberri

DESKRIBAPENA

Beirate bat egiteko prozesuari buruzko erakustaldia

+INFORMAZIO ETA IZEN-EMATEAK

T. 948 012 012 (Gehienez 8 pertsona eguneko)

Aurretik izena ematea: BAI

ANTOLATZAILEA

Olite/Erriberriko Udala

LAGUNTZAILEA

Alberto Chueca Lenzano

MASTERCLASS: ERRIBERRIKO JOTA ETA HERRI INAUTERIETAKOA

DATA	ETA	ORDUA	LEKUA
Larunbata,	irailak 26,	18:00etatik 20:00etara	San Frantzisko eskolak

DESKRIBAPENA

Erriberriko jota eta Erriberriko inauterietako eskualdeko dantzak ikasteko eskola praktikoa

+INFORMAZIO ETA IZEN-EMATEAK

T. 948 012 012 (20 lagun gehienez)

Aurretik izena ematea: BAI

ANTOLATZAILEA

Olite/Erriberriko Udala

LAGUNTZAILEA

Olite/Erriberriko Txiribiri Dantza Taldearen Lagunak

TXAPITEL DORREA BISITATZEA

DATA	ETA	ORDUA	LEKUA
Igandea,	irailaren 27a,	12:00etatik 14:00etara	Karlos III.a plaza

DESKRIBAPENA

Dorrea bisitatzea. Erdi Aroan defentsa sistema gisa eraikia, geroago kontseiluaren ganbera gisa balio izan zuen eta gaur egun, zaharberritu ondoren, ondare zibil gisa kontserbatuta dago, publikoarentzat bisitatzeko irekita.

+INFORMAZIO ETA IZEN-EMATEAK

Ángel Guerrero
T. 628 734 023

Aurretik izena ematea: EZ

ANTOLATZAILEA

Olite/Erriberriko Udala

ERDI ARORA ITZULTZEA BABES-HOBIETAN

DATA	ETA	ORDUA	LEKUA
Igandea,	irailaren 27a,	18:00etan	Erdi Aroko galeriak. Karlos III.a plaza

DESKRIBAPENA

Palazioko Jantziak

+INFORMAZIO ETA IZEN-EMATEAK

María Rosario Domingos
T. 620 964 552

Aurretik izena ematea: EZ

ANTOLATZAILEA

Olite/Erriberriko Udala

LAGUNTZAILEA

Erdi Aroko Batzordea

ARTISAUTZA BIZIBERRITZEA

DATA	ETA	ORDUA	LEKUA
Irailak 28,	astelehena,	17:00	Olite/Erriberriko kultura-etxea

DESKRIBAPENA

Taller de punto y ganchillo

+INFORMAZIO ETA IZEN-EMATEAK

Ángel Guerrero
T. 628 734 023
casadeculturaolite@gmail.com
Inscripciones: 948 012 012
Aurretik izena ematea: BAI

JARDUERA INKLUSIBOA

Herritar guztientzako jarduera

ANTOLATZAILEA

Olite/Erriberriko Udala

LAGUNTZAILEA

La Fuente del Chorrón Elkarte

SUKALDARITZAKO KONTAKIZUNAK: HISTORIADUN ERREZETAK

DATA	ETA	ORDUA	LEKUA
Irailak 29,	asteartea,	17:00	Udal-igerilekuak. Pitillas kalea

DESKRIBAPENA

Nola egin Espainiako gastronomiaren erroskilla tradizionalak eta Kolonbiako plater tipiko bat (platano arra), jatorria eta familien bizitzan irudikatu duena kontatuz.

+INFORMAZIO ETA IZEN-EMATEAK

Izen-ematea: 948 012 012
Aurretik izena ematea: BAI

JARDUERA INKLUSIBOA

Kultura guztientzat irekitako jarduera

ANTOLATZAILEA

Olite/Erriberriko Udala

LAGUNTZAILEA

La Fuente del Chorrón Elkarte
Comunidad Colombiana (Angélica Reina)

SUSHI BEGANO EKOLOGIKO TAILERRA

DATA ETA ORDUA	LEKUA
Irailak 30, asteazkena, 17:00 19:00	Olite/Erriberriko Liburutegia Kultura-etxea

DESKRIBAPENA

Sushi begano ekologiko tailerra, Baratzta Makrobiotikak emana. En el taller se dará a conocer la historia del sushi, se explicará cómo elaborarlo y se compartirá información sobre cada uno de sus ingredientes. Tailerrean sushiaren historiaren berri emango da, nola prestatu azalduko da eta Parte-hartzaile bakoitzak bere sushia prestatuko du.

Izen-emateak: 12 lagun

+INFORMAZIO ETA IZEN-EMATEAK

T. 948 740 772
biblioli@navarra.es
Aurretik izena ematea: BAI

JARDUERA INKLUSIBOA
Herritar guztientzako irekia

ANTOLATZAILEA

“Bakerako eta Elkarbizitzarako Liburutegiak 2026” programa. Kultura, Kirol eta Turismo Departamentuko Liburutegi Zerbitzua eta Memoria eta Bizikidetzta, Kanpo Ekintza eta Euskara Departamentua

LAGUNTZAILEA

Olite/Erriberriko Udala

ITZULTZEN DIREN HITZAK

DATA ETA ORDUA	LEKUA
Irailak 30, asteazkena 11:30	Olite/Erriberriko liburutegia (Kale Nagusia 37)

DESKRIBAPENA

Adinekoek jada erabiltzen ez diren edo ezezagunak zaizkigun termino eta esamoldeak azalduko dizkiete haurrei, ezagutu, erreskatatu eta berriro erabili nahi ditugu eta.

Aldez aurreko izen-ematea: aldez aurretik zehaztutako eskola-taldeentzako jarduera.

+INFORMAZIO ETA IZEN-EMATEAK

biblioli@navarra.es
Aurretik izena ematea: BAI

ANTOLATZAILEA

Olite/Erriberriko liburutegia
La Milagrosa Adinekoen Egoitza
La Acogedora Irakurle Kluba

LAGUNTZAILEA

Olite/Erriberriko Udala
Olite/Erriberriko Príncipe de Viana HLHIP

MASTERCLASS FOTOGRÁFICA DEL PATRIMONIO ARQUITECTÓNICO. LOS EDIFICIOS DE OLITE/ERRIBERRI A TRAVÉS DEL OJO FOTOGRÁFICO: SU EVOLUCIÓN ARQUITECTÓNICA Y TEMPORAL

DATA ETA ORDUA	LEKUA
Urriak 2, ostirala, 19:30	Olite/Erriberriko kultura-etxea

DESKRIBAPENA

Olite/Erriberriko historian zehar eraikinen bilakaerari eta erabilera berriei buruzko dokumentala.

+INFORMAZIO ETA IZEN-EMATEAK

Ángel Guerrero
T. 628 734 023
Aurretik izena ematea: EZ

JARDUERA INKLUSIBOA
Herritar guztientzako irekia

ANTOLATZAILEA

Olite/Erriberriko Udala
Fotoberri

LAGUNTZAILEA

Olite/Erriberriko Udala

HEPTAMERONAREN IRAKURKETA EUSKARAZ

DATA ETA ORDUA	LEKUA
Urriak 3, larunbata, 11:00etatik 12:00etara eta 17:00etatik 18:00etara	Olite/Erriberriko kultura-etxea

DESKRIBAPENA

Heptameron liburuaren irakurketa publikoa (Margarita Nafarroakoa erreginarenean klasikoa) euskaraz

+INFORMAZIO ETA IZEN-EMATEAK

T. 628 734 023
aguerrero@olite.es
Aurretik izena ematea: EZ

ANTOLATZAILEA

Nafarroako Ateneoa

LAGUNTZAILEA

Olite/Erriberriko Udala

LOS ASTROS EN LA CORTE DE CARLOS III EL NOBLE

DATA ETA ORDUA

Urriak 4, igandea
Lehenengo emanaldia 12:30
Bigarren emanaldia 13:00

LEKUA

Enozentrum Olite.
Teobaldos plaza 4

DESKRIBAPENA

Antzezpena.

+INFORMAZIO ETA IZEN-EMATEAK

T. 628 734 023

aguerrero@olite.es

Aurretik izena ematea: EZ

JARDUERA INKLUSIBOA

Herritarrei irekita

ANTOLATZAILEA

Olite/Erriberriko Udala

LAGUNTZAILEA

Los Cadalzos antzerki-taldea

Reyna de copas

EXPOSICIÓN TETRALOGÍA POR EL PASO DE LA VIDA. INMA ZURBANO

DATA ETA ORDUA

Irailak 24, osteguna,
19:30

LEKUA

Olite/Erriberriko
kultura-etxea

DESKRIBAPENA

Harrizko kartoizko koadroak erakustea, bizitzaren
igarotzea kontatuz eta publikoarekin elkarreraginez.

+INFORMAZIO ETA IZEN-EMATEAK

aguerrero@olite.es

Aurretik izena ematea: EZ

JARDUERA INKLUSIBOA

Herritar guztientzako irekia

ANTOLATZAILEA

Olite/Erriberriko Udala

LAGUNTZAILEA

Inma Zurbano

TOLKIEN: ABESTIAK ETA OLERKIAK. MITIKAL TALDEA

DATA ETA ORDUA

Irailak 26, larunbata,
18:00

LEKUA

Olite/Erriberriko Errege
Jauregiko Erregearen
Ganbera

DESKRIBAPENA

Bidaia musikal eta poetikoa Erdialdeko Lurraldean
barna, Tolkienen mitoen edertasunarekin eta olerki
kantatuarekin topaketa intimoa proposatzen duten
musikari nafarren laukote baten eskutik.

+INFORMAZIO ETA IZEN-EMATEAK

T. 628 734 023

aguerrero@olite.es

Aurretik izena ematea: EZ

ANTOLATZAILEA

Olite/Erriberriko Udala

LAGUNTZAILEA

Mitikal taldea

ERREGE JAUREGIRA DOAN SARTZEA

DATA ETA ORDUA

Irailak 26, larunbata,
egun osoan zehar

Irailak 27, igandea,
egun osoan zehar

LEKUA

Erriberriko Errege
Jauregia

DESKRIBAPENA

Erriberriko Errege Jauregira doan sartzea

JARDUERA INKLUSIBOA

Erriberriko Errege Jauregiaren zati bat mugikortasun
urriko pertsonentzat egokitua dago.

+INFORMAZIO ETA IZEN-EMATEAK

T. 691 021 667

info@palaciorealolite.com

Aurretik izena ematea: BAI

ANTOLATZAILEA

MagmaCultura SL

DENBORAREN JOANA GAINDITU ZUEN JAUREGIA

DATA ETA ORDUA

Irailak 26, larunbata -
11:30

Irailak 27, igandea -
12:30

LEKUA

Erriberriko Errege
Jauregia

DESKRIBAPENA

